

Literatura | POESIA

*Miguel Hernández:
poemak.*
Josu Landa.
Susa, 2014



Tipularen negarra

MUNDUKO POESIA KAIERETAKO SEIGARRENA Josu Landak aukeratu eta itzulitako Miguel Hernándezen hau da. Ezinbesteko Hernández, Hernández eterna-la (Orihuela, 1910 - Alacanteko kartzela, tuberkulosiak jota, 1942). Dela hemen dela Sabin Muniategik lehenago eskainitako zertzeladetan, dela Orihuelakoaren hizkuntzan argitaratu diren konta ezinezko antologietan, bere idatziekin hunkitu direnetakoa naiz ni, sutu direnetakoa, desesperatu dutenetakoa. Lorcaren edo 27ko belaunaldi hartako beste izenen lilura arean engainagarriaren aldean, poeta honen debozioa benetakoa da. Paisaiak maitatzera zaramatza, harengekin adoretzen zaitu, kartzelan berarekin odolustu zintezke: “Bihar izango dira/ musuen traba,/ arma bat sentituko/ hortzetan barna./ Sua engoitik/ muinerantz jaitsiko da/ haginez beheiti./ Titiz hegan egizu/ ilargi bitan./ Haiek, tipulaz triste./ Zu, poz irritan./ Burua jaso./ Ez axola zer gerta/ eta zer jazo”.

27koa izan ote zen benetan Hernández? Edo Nerudaren trumoiaren semeetako bat da? Edo Nerudaren trumoiaren semeetako bat da, baina Espainiako urrezko mendeko Cervantes, Lope, Calderón eta Góngoraren markarekin? Josu Landaren hautaketak Ilargietan peritu barrokozaletik

gerrako poesia urgente bezain ederrera egiten du, poetaren bi aurpegiok agerian utziz. Horregatik begitandu zaigu kaiera hau konpletoa bezain arina. Itzulpena, esan dezagun bidenabar, bikaina da. Oktaben neurria eta errima eta guzti errespetatzen ditu adierazkortasunik ia galdu gabe: “Errautsezko uda etengabeak/ larraineko ilargia du zaildu,/ ez da bero gorantz den zutabea,/ urrez iraupenean dela bildu”.

Indar kultu bat dauka Hernándezek bere ahuntz-zain irudiarekin kontrajartzen dena, baina era berean honen osagarri dena. Langile eta artzain kultuen Espainia ezinezko hura ordezkatzeko du Orihuelakoak. 31 urte eskasekin errenditu barik hil zen, “erregimenaren aldeko keinuren bat” eskatzen ziotenei entzungor. Gudaria bezain sentibera eta senarra bezain estoikoa zelako. Hernández da, hitzaurrean Beñat Sarasolak saiheska dioen legez, autentikoa: “gozamen hutsa da Hernándezen lengoia poetikoaren samurtasunetik dorpetasunera etengabeko jauziak egitea”. Hernándezek ez du perfekzioa irudikatzen. Benetakoa da. ■

Igor Estankona





GUREKIN JOLASTU NAHI?

ekar    



-5%

ekar Txartelarekin